

## **MOZIO ARRUNTA, HAEE-IVAP ERAKUNDEAK ANTOLATU ETA DONOSTIAKO UDALARI ESKAINTZEN DIZKION IKASTAROEN HIZKUNTZA DELA ETA**

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, HAEE-IVAP (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) erakundeak antolatu eta Donostiako Udalari eskaintzen dizkion ikastaroen hizkuntza dela eta.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Aurreko hilean, Plangintza eta Garapen Sailak udal langile guztioi zabalduko HAEE-IVAPen ikastaro baten harira, EH Bildu harremanetan jarri zen Donostiako Udaleko langileen ordezkariekin, horrelako ikastaroen hizkuntza kudeaketaz galdetzeko. Langileen ordezkariak jakinarazi zigutenez, ohikoa du HAEE-IVAPek ikastaroak gaztelania hutsez eskaintzea.

HAEE-IVAP erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikia. 16/1983 Legeak zehazten duenez, HAEE-IVAPen misioa da Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioekin lankidetzan aritzea, herritarrei zerbitzu efiziente, kalitatezko eta elebiduna emateko. Lankidetzatza hau zerbitzu publikoaren balio komunetan oinarritzen da, eta honako hauen bidez gauzatzen:

- Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zerbitzurako langileak hautatu eta prestatu.
- Administrazioan euskararen erabilaren normalizazioa eta itzulpengintza ofiziala bultzatu, eta euskarazko terminologia juridiko administratiboa finkatu eta zabaldu.
- Hizkuntzaren, lege eta administrazioaren, eta kudeaketaren hobekuntzaren arloetan aholku eman eta ikertu.

HAEE-IVAPen trebakuntza ikastaroen hizkuntza kudeaketaren inguruan Udaleko langileen ordezkariak azaldu digutenaren arabera, ordea, HAEE-IVAP erakundea ez da betetzen ari bere misioan zehaztuta duena; gaztelania hutsez antolatutako trebakuntza ikastaroak eskainita ez die zerbitzu elebiduna ematen udalei, ezta errazten ere euskararen erabilera normalizatzea erakunde horietan.

Hain zuzen ere, Donostiako Udalak zehaztua du, euskararen erabilera normalizatzeko VI. plangintzaren dokumentuko jarraibideetan, Udalaz kanpoko erakundeek (HAEE-IVAP...) antolatutako prestakuntza ikastaroak euskaraz egingo dituztela hirugarren edo laugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileek, euskaraz antola daitezkeenean.

Beraz, argi ikusten da HAEE-IVAP erakundeari badagokiola eraginkortasunez eta arduratsu jardutea, Donostiako Udalari oztoporik ez eragiteko bere jarduera euskalduntzeko hartutako erabakiak aurrera eramateko garaian.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

**MOZIO ARRUNTA**

Donostiako Udaltzakoak hertsatuki eskatzen dio Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari aurrerantzean eskainiko dizkion langileentzako trebakuntza ikastaroetan berma dezala ikastaro horiek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzeko aukera.

Donostian, 2021eko martxoaren 5ean.

Reyes Carrere Zabala  
EH Bildu udal taldearen bozeramalea